

JOKABIDE-KODEA

BATZGROUP

2025/02

1. SARRERA
2. APLIKAZIO-EREMUA
3. KODEAREN APLIKAZIOA, JAKINARAZPENA ETA JARRAIPENA
4. GURE PROIEKTUA, BALIOAK ETA MISIOA
5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK
 - 5.1. PERTSONAK
 - 5.2. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA
 - 5.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKAK
 - 5.4. HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK
 - 5.5. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA
 - 5.6. JABETZA INDUSTRIALAREN / INTELEKTUALAREN BABESA. ENPRESAREN AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ARDURATSUA
 - 5.7. BATZ TALDEAREN IRUDIAREN ETA OSPEAREN SUSTAPENA

1. SARRERA

Jokabide-kode hau BATZ Taldearen Antolaketa- eta Kudeaketa-ereduaren (Compliance Program) barruan dago.

Jokabide-kodeak BATZ Taldean lehendik dagoen enpresa-kultura sendotzea du xede.

Kode honen betetzea lankidetzan, konfiantzan eta errespetuan oinarritzen da, baita BATZ Taldearen ordezkari diren pertsonen eta haiekin harremanetan dauden hirugarrenen arteko komunikazio guztien erabilera konfidentzialean ere.

BATZ Taldeak Jokabide-kode hau garatzen duten hainbat arau, jarraibide eta prozedura ditu, eta Taldeko kide den Pertsona orok horiek guztiak ezagutzeko eta betetzeko erantzukizuna du.

BATZ Taldeak Jokabide-kode honetan ezarritako Balio eta Printzipio Etikoak benetan eta eraginkortasunez aplikatzen direla zainduko du, eta ez-betetzeak eta hobetzeko arloak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu.

2. APLIKAZIO-EREMUA

Jokabide-kodea BATZ Talde osoan aplikatuko da, MUNDU-MAILAN, hemen deskribatutako gutxieneko eta nahitaez bete beharreko baldintzak indar

ditzaketen tokiko legeriak errespetatzeko betebeharra alde batera utzi gabe.



BATZ Taldeak gutxiengoarekin parte hartzen duen sozietateetan, dagokien zuzendaritza-organismoek Jokabide-kode honen eduki bera edo antzekoa duen Jokabide-kode bat onartzea proposatuko zaie.

Kodearen eraginpeko pertsonak

BATZ Taldeko pertsona guztiak, BATZ, S. Coop.-en kontrolpeko sozietateak barne, eta, ahal den neurrian, Hornitzaileak, Bazkideak eta Bezeroak.

Kodearen zabalkundea

Jokabide-kode honen berri BATZ Taldean sartu berri diren pertsona guztiei ematen zaie, horretarako ezarritako Harrera-planaren bidez. Jokabide-kodea onartzen edo aldatzen den egunean jada Taldeko kide diren langileei intranet bidez edo horretarako berariazko dokumentazioaren bidez jakinaraziko zaie. Hirugarrenei edo interes-taldeei dagokienez, Jokabide-kodea webgunearen edo argitalpen espezifikoaren bidez zabaltzen da. Kontrolatutako Sozietate bakoitzeko Gerentziaren erantzukizuna izango da Jokabide-kodea eraginkortasunez zabaltzen dela ziurtatzea.

Kodearen balioa BATZ Taldeko pertsonentzat

Pertsona guztiek dute Jokabide-kodea ezagutzeko eta nahitaez betetzeko betebeharra, eta Kodean jasotako Balio eta Printzipio Etikoen arabera jokatu behar dute.

Zuzendaritza Kontseiluko, Artezkaritza Kontseiluko, Kontseilu Sozialeko, Zaintza Batzordeko eta Betetze Batzordeko kideek bereziki ezagutu eta bete behar dute Jokabide-kodea.

Jokabide-kodearen balioa Hornitzaileentzat

BATZ Taldearen hornitzaileek Jokabide-kodea bete behar dute. BATZ Taldeak Jokabide-kode hau betetzen ez duten hornitzaileekin egindako edozein kontratu amaitzeko eskubidea izango du.

3. KODEAREN APLIKAZIOA, JAKINARAZPENA ETA JARRAIPENA

Indarraldia

Jokabide-kode hau BATZ, S. Coop.-eko Artezkaritza Kontseiluak onartu zuenetik dago indarrean, hots, 2017ko martxoaren 29tik, eta, indargabetzeko berariazko akordiorik egin edo ordezkio beste bat indarrean sartu ezean, horrela jarraituko du.

Hala eta guztiz ere, Jokabide-kode hau dinamiko denez, egokitzea, eguneratzea, aldatzea eta garatzea aurreikusten da.

Edozein hobekuntza-iradokizun, zalantza edo kritika Betetze Batzordeari helarazi behar zaio, hura baita Kodea betetzen dela eta behar bezala aplikatzen dela zaintzeko organo eskuduna.

Jokabide-kodearen interpretazioa

Jokabide-kode hau eta BATZ Taldearen Compliance Program osatzen duen edozein Protokolo bat ez badatoz, Jokabide-kodea gailenduko da. Halaber, Protokoloak Jokabide-kode honen espiritua eta helburua aintzat hartuta interpretatuko dira.

Betetze Batzordeari dagokio Jokabide-kodearen edukari buruzko zalantzak interpretatzea eta argitzea. Haren interpretazio-irizpideak nahitaezkoak dira hartzaile guztientzat.

Betetze Batzordea

BATZ Taldeko Betetze Batzordeak, Betetze Zuzendaritza (Compliance Officer) buru duela, betetze-zereginaren berezko gai guztietan du eskumena.

Betetze Batzordeak Jokabide-kode honen edukia prestatzen eta proposatzen du, baita BATZ Taldearen Compliance Program osatzen duten Protokoloak ere, zeinak, BATZ, S. Coop.-eko Artezkaritza Kontseiluak onartu ostean, Pertsona guztiek nahitaez bete behar dituzten.

Ez-betetzea eta Barne Informazio Sistemari jakinaraztea

Jokabide-kode hau ez betetzea Compliance Programen arau-haustea da eta lan- edo sozietate-zehapenak ekar ditzake, dagozkion administrazio- edo zigor-zehapenak baztertu gabe.

Jokabide-kodea betetzea errazteko, Barne Informazio Sistema (BIS) dago, konfidentziala edo anonimoa, eta haren bidez:

- Jokabide-kodearen interpretazio edo aplikazio praktikoaren gainean izan daitezkeen zalantzak argitzen dira.
- Kodearen balizko arau-haustek jakinarazten dira.
- Arau-hauste juridikoak jakinarazten dira.

Jokabide-kode hau edo garatzen duten Protokoloak eta Araudiak Hobetzeko Arlo edo Ez-betetze baten berri edo herrialde bakoitzean indarrean dagoen eta aplikatzekoa den legeria juridikoaren aurkako egitateen berri duen BATZ S. Coop.-eko Pertsona orok Betetze Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio, Barne Informazio Sistemaren bidez. Hori ez egitea Jokabide-kodearen arau-haustetzat joko da.

Legeria, Jokabide-kodea edo berau garatzen duten Protokoloak eta Araudiak urratzearekin lotutako egitate edo gorabehera bat edo indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren aurkako egitateak ezkutatzea ez da BATZ Taldearen intereseko ekintzatzat joko.

Betetze Zuzendaritzari helarazi beharreko jakinarazpena bitarteko honen bidez egin ahal izango da:

- **BATZen intraneten dagoen Barne Informazio Sistemaren bidez.**

Jakinarazpen-egileari Kanal Etikoari egindako jakinarazpenarekin lotutako aurrerapenen gaineko informazioa emango zaio.

3. KODEAREN APLIKAZIOA, JAKINARAZPENA ETA JARRAIPENA

Jakinarazpenen konfidentzialtasuna eta errepresalien debekua

BATZ Taldeak Barne Informazio Sistema Etikoari jakinarazpenak egiten dizkioten pertsonen nortasunari buruzko konfidentzialtasuna bermatzen du, edo anonimotasuna, Pertsonak jakinarazpena modu anonimoan egitea erabaki badu.

Barne Informazio Sistemarekin lotutako jakinarazpen eta prozedura guztiak datu pertsonalen babesari dagokion araudian ezarritako eskakizunak errespetatuz kudeatuko dira.

Debekatuta dago Pertsona baten aurka, jakinarazpen bat egin duelako, errepresalia den inolako neurririk edo ondorio negatiborik ezartzea. Jakinarazpena egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide-kode honen arau-haustea izango da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako errepresalien debekuak ez du diziplina-neurriak hartzea eragotziko, hala badagokio, barne-ikerketaren arabera jakinarazpena faltsua denean eta fede txarrez egin denean.

Barne Informazio Sistemaren prozedura

Betetze Zuzendaritzak Barne Informazio Sistemaren bidez jasotzen dituen jakinarazpen guztien erregistroa izango du.

Jakinarazpen bat jaso ondoren, Betetze Zuzendaritzak barne-ikerketak abiatzeko aginduko dio Betetze Batzordeari, salbu eta, Betetze Zuzendaritzaren iritziz, jakinarazpenak argi eta garbi funtsik ez badu edo Jokabide-kodearekin eta, hala badagokio, Protokoloekin zerikusirik ez duten gaien gainekoa bada. Kasu horietan, Betetze Zuzendaritzak jakinarazpenen erregistroan jakinarazpena jaso duela eta ikerketarik ez abiatzea erabaki duela adierazi beharko du. Erabaki horrek ez du eragotziko gerora, informazio gehigarria jaso gero, ikerketak abiatzea.

Egindako barne ikerketan, Betetze Batzordeak egokitzen jotzen duen informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango du BATZ Taldeko edozein arlo edo negoziotan.

Benetan abiatutako prozedura oro Betetze Batzordearen ebazpenarekin amaituko da, non, hala badagokio, BATZ, S. Coop.-eko Artezkaritza Kontseiluak onartu beharreko proposamena egingo duen.

Jakinarazpenak Betetze Batzordeko kide bati eragiten badiu, hark ezingo du izapidetzean parte hartu eta Jokabide-kode honen 5.3. atalean aurreikusitako Interes-gatazkari buruzko arauak aplikatuko dira.

Aipatu proposamenean, dagozkion neurriak ezarriko dira, lan-arloko legeria, Barne Araudia eta Pertsonen aplikatutako gizarte- edo lan-arloko beste edozein arau aplikatuta, zigor administratibo edo penalak ere ezartzea alde batera utzi gabe, hala badagokio.

4. GURE PROIEKTUA. BALIOAK, MISIOA ETA IKUSPEGIA

GURE BALIOAK



ONARRIAN EDUKITA



Enpresa industrial global gisa, gure misioa mugikortasun jasangarri baterako eraldaketaren buru izatea da, gure bezeroentzako balio partekatua sortuz. Arratian eta Bizkaian ditugun sustraiei lotuta, industria-lankidetzak sustatzen dugu, ezagutzen eta teknologian oinarritutako irtenbide berritzaileak eskainiz. Gure hazkunde jasangarriak eta lankidetzakoak aukera ematen digu jarduten dugun eskualde guztietara ongizatea eramateko, eta, hala, tokiko berrikuntza- eta ekintzailetza-ekosistemekin dugun lotura sendotzeko.

BALIOAK

BATZ Taldea osatzen duten Pertsona guztiek balio hauekin bat egiten dute:

Erreferenteak Bezeroei dagokienez

BATZen, harremanen balioan sinesten dugu. Horregatik, bezero bakoitzaren beharrak zehatz-mehatz ezagutzen saiatzen gara, haren espektatibez haragoko irtenbide pertsonalizatu eta egokituak eskaintzeko. Gure proaktibotasunak eta konpromisoak konfiantza eta elkarrekiko gogobetetasunean oinarritutako harreman iraunkorrak eraikitzea ahalbidetzen digute, betiere BATZen interesak babesteari utzi gabe.

Efizientzia

Efizientzia ingeniaritza, talde-lan eta berrikuntzarekin dugun pasioaren emaitza da. Sormenezko irtenbideak topatzeko dugun gaitasuna talde-lanean eskuz esku jarduteko trebetasunarekin uztartzen dugu. Modu koordinatuan lan egiten dugu gure helburuak eraginkortasunez eta efizientziaz lortzeko. Aldaketak onartzeko eta ideia berriak jorratzeko prest gaudenez, azkar egokitzen gara merkatuaren beharretara eta sortzen zaizkigun erronkak gainditzen ditugu.

Asmamena

Lorpenari begirako ikuspegia berrikuntzarekin konbinatzeko gaitasuna da. Helburu desafiatsuak ezartzean, horiek betetzeko azkar eta malgutasunez jardutean, eta sektoreko joera berrietara egokitzean datza. Balio honek etengabe hobetzerak eta erakundeari balioa ematera bultzatzen gaitu, merkatuaren beharrei aurrea hartuz eta gure bezeroen espektatibak gaindituz.

Harrotasuna

Harrotasuna da denoi balioetsiak eta konprometituen sentiarazten gaituen enpresa eraikitza bultzatzen gaituen indarra. Positibotasunaren eta garapen pertsonalaren kultura sustatzen dugu, elkarrenganako errespetuzko eta konfiantzazko giroan. Hala, guran garatzen den kide izatearen sentipen sendoak geure onena emateko motibazioa sortzen digu.

Errotzea

BATZen, errotzea sorlekua baino gehiago da. Arratiako eta Bizkaiko garapenarekin dugun konpromiso sakona da, eta partekatutako enpresa-proiektu bateko kide sentitzea. Gure sustraiez harro gaude, eta pasioz lan egiten dugu bai gure eskualderako bai gure lantegiak dauden beste guztietarako etorkizun oparoa bermatzeko.



Balio hauei dagokienez, MONDRAGON TALDEAren barruan garatutako Balio Kooperatiboak ere BATZ TALDEAren identitatearen parte dira.

Era berean, eta gure Xedearen, Misioaren eta Balioen arabera, gure ekimenak 2030 Agendarekin eta bertan ezarritako Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatzen ditugu.

5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.1. PERTSONAK

BATZ Taldeak Giza Eskubideen Adierazpenaren oinarrizko printzipioak onartzen ditu, Nazio Batuen 1984ko definizioaren arabera.

Laneko Segurtasuna eta Osasuna

BATZ Taldeak konpromisoa du osatzen duten Pertsonen, bai eta bere Hornitzaileei, Bazkideei eta Bezeroei ere, lan-ingurune seguru eta osasungarria eskaintzeko, bai prozesuetan bai instalazio eta zerbitzuetan.

BATZ Taldearen lantokietan lan egiten duten Pertsona guztiek BATZ Taldeak laneko segurtasunari eta osasunari dagokien ezarritako arauak ezagutu eta bete behar dituzte, eta baliabideak modu seguruan eta arduratsuan erabili, lan-arriskuak prebenitzeko eta minimizatzeko.

Bortxazko lanaren debekua eta kontratazio-politika

BATZ Taldeak ez du onartzen inolako bortxazko lanik edo derrigorrezkorik, LANeren Oinarrizko Lan Arauen arabera.

BATZ Taldeak gaitzetsi egiten du eta ez du jotzen, ez zuzenean ez zeharka, Pertsonaren borondatea mehatxatuz, zigortuz, gabeziak ezarriz, esklabotza- edo erdiesklabotza-formulak aplikatuz edo Giza Eskubideak urratzen dituen beste edozein ekintza eginez behartuta eskuratutako lanera.

BATZ Taldeak uko egiten dio bere merkataritza-jardueretan edozein motatako bortxazko lanik edo legez kanpokoari.

BATZ Taldeak:

- Ez du indarra erabiliko ⁽¹⁾.
- Bere langileak ez ditu bortxazko lana edo lan esklabo egitera behartuko.

BATZ Taldearen lan-kontratazio politikak indarrean dagoen legeriaren arabera da, eta, horrekin bat etorriz, gizarte-babeserako eskubidea ematen duen, enplegu egonkor eta kalitatezkoarekiko konpromisoa agerian jartzen duen, eta bizi-maila duina asetzeko ordainsari-politika ezartzen duen oro barne hartzen du.

BATZ Taldeak, Pertsonen bizitza pribatuaren eta profesionalaren arteko oreka egokia lortzeko asmoz, kontuan hartzen ditu haien itxaropenak eta premiak, aldi berean neurri horiek erakundearen lehiakortasunetik ez bereizteko ahalegina eginda, eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzari dagokionez Pertsonak dituzten betebeharrak arreta berezia jartzen die.

Gizakiekin trafikatzeko debekua eta atzeritarren babesa

BATZ Taldeak bere gain hartzen du atzeritarren babesa, dagokion atzeritarren araudia betez.

BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak ez dute laguntzarik emango Europar Batasuneko Estatu bateko herritarra ez den norbait atzeritarren sarrerari edo joan-etorriari buruz aplikatzeko den legeria urratuz Estatuan sartu, egon edo bertatik igaro dadin.

Atal honekin lotutako gertakariaren bat antzemanaz gero, Betetze Batzordeari jakinaraziko zaio, arrazoiak aztertu eta dagozkion ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak zehatz ditza.

Haurren lanaren debekua eta adingabeen babesa

Adingabeen babesa BATZ Taldearen Printzipio Etikoetako bat da, haurren lanera ez jotzea dakarrena berekin, hau da, adingabeei beren haurtzaroa, ahalmena eta duintasuna hondatzen dien eta garapen fisiko eta psikologikoko kaltegarria den lanera.

Era berean, haurren lantzat joko da lan egiteko legezko gutxieneko adina bete ez duten adingabeak enplegatzea. BATZ Taldeak bermatuko du 18 urte bete ez dituzten langile legez gazteek ez dutela gauez edo aparteko orduetan lan egingo, eta beren osasunerako, segurtasunerako edo garapenerako kaltegarriak diren lan-baldintzetatik babestuta daudela, gutxieneko adinari buruzko 1973ko Hitzarmenaren (138. zk.) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren (2012/C 326/02) arabera.

BATZ Taldeak ez ditu adingabeak kontratatuko ⁽²⁾ eta langile guztien jaiotza-data jasoko duen erregistroa izango du.

(1) Bortxazko lantzat jotzen da zigortua izateko edo norberaren agiriak (NANa, pasaporte, etab.) konfiskatuak izateko mehatxuarekin egiten den eginkizun oro, pertsona borondatez egiten ari ez dena.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

BATZ Taldearen lantegietan adingaberen bat dagoela antzemanaz gero, Betetze Batzordeari jakinaraziko zaio, dagokion kontratua deusezta dezan; horrez gain, arrazoiak aztertu eta dagozkion ekintza zuzentzaileak eta prebentziozkoak zehaztuko dira.

BATZ Taldeak bermatuko du langile gazteen zereginak ez dutela galarazten haiek eskolara joatea, eta langile gazteen guztizko lan- eta eskolatze-denbora 10 ordutik gorakoa ez izatea errespetatuko du.

Segurtasun-indarren erabilera

BATZ Taldeak ez du onartzen segurtasun-langileek gainerako langileekiko edo hirugarrenenakiko legez kontrako inolako jokabiderik izatea.

Hala, BATZ Taldeak ahal duen guztia egiten du segurtasun-zerbitzuen hornitzaileak kontratu bidez giza eskubideak errespetatzera behartuta egon daitezen eta, beharrezkoa denean, aholkularitza eta prestakuntza egokia jaso dezaten.

Berdintasuna eta errespetuzko lan-ingurunea

BATZ Taldearen helburua da elkarrenaganako konfiantza eta errespetua nagusi diren lan-ingurunea sortzea. Horretarako, Pertsona guztiek, lanbide-maila guztietan, talde-lanean elkarrenganako errespetuan, integritatean, adeitasunean, konfiantzan, lankidetzan eta ahaleginean oinarritutako harremanak sustatuko dituzte, lankideen, zuzeneko arduradunen eta ardurapeko pertsonen artean lan-ingurune adeitsua bultzatuz, lan-giro positiboa lortzeko xedez.

Errespeturik eta begirunerik eza, iraina, difamazioa, larderia, abusua, jazarpena edo edozein motatako eraso psikologiko, fisiko edo sexuala, baita generoagatiko, sexuagatiko edo sexu-identitateagatiko abusua ere, onartezinak dira eta ez dira ez onartuko ez toleratuko lan-esparruan.

BATZ Taldeak, ezarrita duen hautaketa-politika zorrotz eta objektiboari jarraikiz, hautagaien merezimendu akademiko, pertsonal eta profesionalak eta BATZ Taldearen beharrak hartzen ditu kontuan, besterik ez.

BATZ Taldearen prestakuntza-programek aukera-berdintasuna eta lanbide-ibilbidearen garapena bermatzen dituzte, eta modu aktiboan laguntzen dute Taldearen helburuak betetzen. Orobat, lanean mailaz

igotzeko aukera Pertsona bakoitzaren merezimenduan, gaitasunean eta jardunean oinarritzen da.

Horren arabera, BATZ Taldea espresuki konprometitu dago arrazagatik, erlijioagatik, sexuagatik, adinagatik, nazionalitateagatik, sexu-joeragatik, genero-identitateagatik, egoera zibilagatik edo desgaitasunagatik ez diskriminatzera, ezta diskriminazio-iturri izan daitekeen beste edozein arrazoiengatik ere.

Elkartzeko askatasuna, negozioazio kolektiboa eta kanpo-jarduerak

BATZ Taldeak bertan lan egiten duten Pertsonen jardura sozial eta publikoak egitea errespetatzen du, betiere jarduerok beren lanbide-jarduna oztopatzen ez badute.

BATZ Taldeak lan-arloko sindikatzeko eskubidea, elkartzeko askatasuna eta negozioazio kolektiboa errespetatzen ditu.

Pertsonen alderdi politikoekin edo helburu publikoak dituzten bestelako entitate, erakunde edo elkarteekin harremana badute, argi utziko dute pertsonala dela eta BATZ Taldearekin inolako loturarik ez duela.

Pribatutasuna, datu pertsonalen erabilera eta konfidentzialtasuna

BATZ Taldeak Pertsonen intimitate-eskubidea errespetatzen du, intimitatearen adierazpen guztiak barne hartuta, bai eta Pertsonen Interneten eta gainerako komunikabideen bidez egiten dituzten komunikazioak ere. Bereziki, datu pertsonalen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuko dira. Datu pertsonalak enpresako langile jakin batzuek bakarrik eskura ditzakete, horretarako baimena dutenek, hain zuzen ere, eta Konfidentzialtasun-akordioa sinatu beharko dute.

Ondorioz, BATZ Taldeak ez du datu pertsonalik zabalduko, interesdunen baimena eduki ezean edo legeak hala agintzen duelako edo ebazpen judizial edo administratiboak betetzeko beharrezkoa izan ezean. Datu pertsonalak ezingo dira erabili, inola ere, legez edo kontratuz aurreikusitako helburuez bestelakoetarako.

(2) Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE - ILO) lanerako gutxieneko adinari buruzko 1973ko Itunaren arabera, haurra 15 urtetik beherako pertsona oro da, tokiko legeek adin handiagoa edo derrigorrezko eskolatzea ezarrita duten kasuetan salbu; halakoetan, adin handiena aplikatuko da. Tokiko legeriek 13 eta 15 urte edo 12 eta 14 urte bitarteko pertsonen enplegua baimen dezakete, baldintza haiek betetzen dituzten eginkizunetarako: adingabearen osasuna edo garapena ez kaltetzea; eta eskolara edo prestakuntza-programetara joatea ez eragozte.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.2. INGURUMENAREKIKO KONPROMISOA

Ingurumena

BATZ Taldeak bere Jardueraren ingurumen-inpaktua minimizatzeko konpromisoa du. Horregatik, ingurumena kudeatzeko sistemak eta ISO 14001 ziurtagiria ditu, legeria betetzen dela eta prozesuak etengabe hobetzen direla ziurtatzeko.

Pertsonak, beren eskumenen esparruan, ahaleginak egin beharko dituzte BATZ Taldeak haien eskura jarritako instalazio, aktibo eta baliabideen erabileraren ondoriozko ingurumen-inpaktua minimizatzeko, eta ingurumena zaintzeko konpromiso aktibo eta arduratsua bere egin beharko dute. Zehazki, (i) beren

lantokian ingurumenari dagokionez indarrean dauden arauak, jarraibideak eta prozedurak ezagutu eta bete behar dituzte, eta, (ii) beren erantzukizunaren esparruan eta BATZ Taldearen politiken arabera, instalazioetako baldintzak ingurumenaren ikuspegitik hobetzen eta ingurumen-alderdiak eraginkortasunez kudeatzen saiatu behar dira.

Bizimodu osasungarria

BATZ Taldeak bizimodu osasungarria sustatzen du bertan lan egiten duten Pertsonen artean, bereziki laneko prebentzio-zerbitzuaren eta ISO 45001 ziurtagiriaren bitartez.



5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKAK

Agintariekiko, Erakunde Arautzaileekiko eta Administrazio Publikoekiko harremanak lankidetzaz eta gardentasun-printzipioen arabera jorratuko dira.

BATZ Taldeak Administrazio Publikoekin dituen betebeharrak beteko ditu, bereziki Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzarekin eta dirulaguntzak ematen dituzten erakundeekin dituenak.

Ustelkeria

BATZ Taldea ustelkeria-mota ororen aurka dago, eta onura edo abantailaren bat lortzeko helburuz BATZ Taldekoak ez diren pertsonen borondatean legez kontra eragitearen aurka. Estortsioa eta eroskeria espresuki debekatuta daude, legez kontrako edozein abantaila zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitzmatea barne, baita influentzia-trafikoa ere.

Hori dela eta, Pertsonak bai nazio-mailako bai hirugarren herrialdeetako Administrazio Publikoekin eta nazioarteko erakundeekin dituzten harremanetan norbanako, agintari edo funtzionario publiko bat bere inpartzialtasun-betebeharrak edo edozein lege-agindu urratzera ez bultzatzeko moduan jokatu beharko dute.

Ezin izango da izapideak errazteko edo arintzeko ordainketarik egin, hau da, dirua edo beste zerbaite baliotsua eman, zenbatekoa edozein izanda ere, edozein organo judizialen, administrazio publikoren edo erakunde ofizialen aurrean izapide edo jarduketa bat ziurtatzearen edo arintzearen truke.

Atal honetan ezarritako debekuak barne hartzen ditu dagokion norbanako, agintari edo funtzionario publikoarekin familia- edo adiskidetasun-harreman bidez lotura hertsia duten pertsonak.

Opari-politika

Opariak edo erregaliak BATZ Taldearen marka-irudia sustatzeko dira. BATZ Taldeko zuzendaritzako kideek eta gainerako Pertsonak ezin izango dute oparirik, gonbidapenik, mesederik edo konpentsaziorik eskaini, eman, eskatu edo onartu, ez zuzenean ez zeharka, ez dirutan ez gauzatan, horien izaera edozein izanda ere, legezkoak ez diren edo Jokabide-kode hau urratzen duten helburuak lortzeko.

Balio ekonomiko mugatuko opariak edo erregaliak, ordea, baimenduta daude, betiere eskudirutan izan ezean; adibidez, balio gutxiko propaganda-objektuak, kortesiazko opariak edo gizartean ohikoak diren noizbehinkako opariak, hala nola Gabonetakoak.

Edozein gonbidapen, opari edo erregalia, bere maiztasunagatik, izaeragatik edo egoeragatik hartzailearen objektibotasunean eragiteko asmoz egintzat jo badaiteke, ukatu edo itzuli egingo da, eta zuzeneko arduradunari eta Betetze Batzordeari lehenbailehen jakinaraziko zaie. Modu zentzudunean itzultzea ezinezkoa bada, Giza Baliabideen Sailari emango zaio, eta hark, dagokion ordainagiria egin eta BATZ Taldearen oparien inbentarioan jaso ostean, gizarte-intereseko helburuetarako erabiliko du.

Esportazioak

Esportazioen kontrolaren esparruan, ondasunen mugaz gaindiko trukea debekuen, murrizketen, agintarien onarpenen edo beste ikuskapen-neurri batzuen mende dago.

BATZ Taldeak, inportazio- eta esportazio-jardueretan, ondasunen, zerbitzuen eta informazioaren inportazioari eta esportazioari buruzko arau guztiak betetzen ditu, aplikatzeko den legerian ezarritakoak, hain zuzen ere, baita BATZ Taldearen Barne Araudia eta gainerako operadoreek ezarritako kanpo-araudia ere, eta Taldearen hornitzaile guztiek horiek guztiak bete behar dituzte.

Guztiz debekatuta dago herrialde bateko zehapenen zerrenda ofizialetan ageri diren pertsonekin edo enprekin negozioak egitea, entrega-prozesua edozein izanda ere. Kontrabandoarekin lotuta egon daitezkeen jarduerak espresuki debekatuta daude.

Ondasun eta zerbitzuen inportazioari eta esportazioari buruzko erabakiak hartzeko orduan, behar bezala aztertzen da erabakia esportazioen kontrolaren mende egon ote daitekeen. Zalantzarik izanez gero, Eragiketen Zuzendaritzari aholkularitza eskatzen zaio.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

Piezen faltsifikazioaren prebentzioa

BATZ Taldeak metodo eraginkorrak eta prozesu egokiak garatzen, ezartzen eta mantentzen ditu entregatzen dituen bere produktuetan faltsututako piezak eta materialak txertatzeko arriskua ahal bezainbeste murrizteko.

Dirulaguntzak

BATZ Taldeko sozietateetako edozeinek dirulaguntza-eskaerarik egin nahi badu, Taldeko Finantza Arlo Korporatiboak gainbegiratu du beti, dagokion araudia behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko. Horretarako, kanpo-aholkularitza izango du kudeaketarako, eta dirulaguntzak egokiro justifikatzen direla ziurtatuko du, kanpo-auditoretzen bidez.

Administrazio Publikoei eskatutako edo haiek emandako laguntzak behar bezala erabiltzen direla ziurtatuko du, alegia, laguntzak eskuratzeko baldintzak ez direla faltsutzen edo ez direla haien xede den erabileraz bestelako zerbituetarako erabiltzen.

Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa

BATZ Taldeak kapital-zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari buruz aplikatzekoak zaizkion xedapen nazional eta nazioartekoak beteko ditu.

Bezeroen identifikaziorako, informaziorako eta barne-kontrolerako neurriak aplikatuko dira, horretarako ezarriak, eta agintaritza eskudunei ahali beste lagunduko zaie.

Delituzko edo legez kanpoko jardueretatik eratorritako kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko eragiketak prebenitzeko eta saihesteko, Pertsonak arreta berezia jarri beharko diote legez kontrako aipatu jokabide horiekin zerikusia izan dezaketen jokabideen prebentzioari.

Interes-gatazkak

Taldearen ustez, berau osatzen duten Pertsonakiko harremana Taldean duten interes komunek eragindako leialtasunean oinarritu behar da. Ondorioz, Pertsonak Interes-gatazka dakarren edozein egoera saihestu behar dute.

Interes-gatazkatzat joko da Pertsonaren baten interes pertsonalak eta BATZ Taldearen interesak talka egitea, edo eraginda edo desitxuratuta egotea. Interes pertsonala egongo da gaiak Pertsonari edo harekin lotura duen beste bati zuzenean eragiten dionean.

Pertsonarekin lotura duten pertsonatzat honako hauek joko dira: Pertsonaren ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duena; Pertsonaren edo haren ezkontidearen (edo antzeko afektibitate-harremana duenaren) ondorengoak, aurrekoak eta anai-arrebak; bai eta sozietateak edo enpresak ere Pertsonak edo harekin lotura duten pertsonak kontrolatzen dituztenean, edo bertan administrazio- edo zuzendaritza-kargu bat betetzen dutenean, edo, zuzenean edo zeharka, haien erabaki finantzario eta operatiboetan eragin nabarmena dutenean⁽¹⁾.

Interes-gatazkako egoeran dagoen Pertsonak lehenbailehen jakinaraziko dio bere zuzeneko arduradunari. Interes-gatazka den ala ez garbi eduki ezean, Betetze Batzordeak erabakiko du. Orobat, Interes-gatazka duen Pertsonak ez du esku hartuko edo eragingo Interes-gatazkaren eraginpeko erabakietan, ez du parte hartuko erabaki horiek hartzeko bileretan eta ez du Interes-gatazka horri eragiten dion Informazio Konfidentzialik eskuratu.

Jarduera politikoa

BATZ Taldeko edozein Pertsonak kontu politikoetan parte hartzeko eskubidea du, bere izenean, baina parte-hartze politiko horrek ez du Taldearekin zerikusirik izango.

BATZ Taldeko sozietateek ezin izango dituzte hautagaiak eta alderdi politikoak legez kanpo finantzatu.

Erabat debekatuta dago jatorri publikoko funtsak eta kredituak BATZ Taldeko Finantza Zuzendaritzaren alde zuzentzeko baimenik gabe eskuratzeko.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.4. HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK

BATZ Taldeak jasangarritasunean eta gizarte-erantzukizunean oinarritutako irizpideak darabiltza hornitzaileak hautatzeko bere prozesuetan, eta erakundearen hornidura-katearen bidez praktika sozialki arduratsuak aplika daitezzen sustatzen du. Hornitzaileak eta Bezeroak hautatzeko prozesuetan, Pertsona guztiek kalitate-, aukera-, kostu- eta jasangarritasun-irizpideak aplikatu beharko dituzte, betiere BATZ Taldearen interesen alde eginda. Betebehar horrek bereziki eragiten die horniduren eta zerbitzuen kontratazioari buruzko erabakiak hartu behar dituztenei, bai eta Bezeroekin egin beharreko eragiketen baldintza ekonomikoak erabakitzen dituztenei ere.

BATZ Taldeak badu Jasangarritasun-politika, Hornitzaileei aplikatu beharrekoa, non BATZ Taldearen hornitzaileek etika korporatiboari, ingurumenaren babesari, baliabideen kontserbazioari, Giza Eskubideei eta gizarte-estandarrei dagokienez bete behar dituzten gutxieneko baldintzak jasotzen diren, eta, politika horren arabera, BATZ Taldearen hornitzaile guztiek nahitaez bete behar dute Jokabide-kode hau.

Hornitzaileekiko, Bazkideekiko eta Bezeroekiko harremanetan, Kode honen 5.3. atalean ezarritako Ustelkeriaren aurkako Politika aplikatu behar da.

Ondorioz, ezin izango zaie egin edo eman inolako eroskeria- edo komisio-motarik Hornitzaileei, Bazkideei edo Bezeroei, ezta haiengandik halakorik jaso ere, eta ondasunak edo zerbitzuak eskuratzeko edo kontratatzeke erantzukizuna duten beste enpresa batzuetako pertsona ezin izango zaie legez kontrako abantailarik eman, ezta haiengandik jaso ere, beren betebeharrak eta legeria urratuz BATZ Taldearen zerbitzuak edo produktuak eskuratzearen alde egin dezaten.

Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa

BATZ Taldeak lehia askea ez kaltetzeko konpromisoa du. Hala, lehiaren babesari buruzko araudia betetzeaz gain, lehiaren kolusioa, abusua edo murrizketa edo prezioen aldaketa ekar dezakeen edozein jokabide saihestuko du.

Ez da jarduera desleialik egingo, ezta BATZ Taldearen eta haren lehiakideen edo hirugarrenen Jardueraren iruzurrezko edo irainezko publizitaterik ere.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.5. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

BATZ Taldea osatzen duten Pertsonen lanbide-jardueran sortzen den informazioa (teknikoa, ekonomikoa, finantzarioa, komertziala, legala, etab.) BATZ Taldearen jabetzakoa da, eta babestu egin behar da. BATZ Taldearen jabetzakoa ez dena legezko xedapenen eta BATZek bere gain hartutako konpromisoen arabera erabili beharko da.

BATZ Taldeak bere esku duen informazio ez-publikoa, euskarri informatikoan edo beste edozein euskarritan, Informazio Konfidentzialtzat joko da, oro har. Ondorioz, BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak isilpean gorde behar dute Informazio Konfidentziala.

BATZ Taldeko Pertsona orok bere jardueretan kudeatzen duen Informazio Konfidentzial guztiaren konfidentzialtasuna ziurtatzeko betebeharra du, eta BATZ Taldearen Informazioaren Segurtasunerako Politika eta Araudien helburu berak bete behar ditu; besteak beste, informazioa erabilgarritasun-, konfidentzialtasun- eta osotasun-galeretatik babestu, eta Informazio Konfidentzialarekin lotutako edozein segurtasun-gorabehera behar bezala jakinarazi eta tratatu.

Hortaz, Pertsonak kontu handiz erabiliko dute Informazio Konfidentziala, eta hura babesteko behar adina baliabide jarriko dituzte; informazioaren segurtasunari aplikatzen zaizkion legeak, kontratuak eta araudiak betetzen direla bermatuko dute; eta informazioaren edukia hirugarrenei ematea galaraziko

dute, kasu bakoitzean BATZ Taldean eskumena duen Pertsonaren edo organoaren berariazko baimena eduki edo legeak, epaileak edo administrazio-agintaritzak agindu ezean.

Informazio Konfidentziala BATZ Taldekoak ez diren hirugarrenena denean, Pertsonak BATZ Taldeak hirugarren horiekin izenpetutako konfidentzialtasun-akordioak bete beharko dituzte.

Pertsonak, BATZ Taldearekin duten lan- edo sozietate-harremana etendakoan ere, konfidentzialtasun-betebeharra izango dute, eta hala dokumentuak nola biltegitratzeko bitartekoak edo gailuak itzuli beharko dituzte, baita beren terminal informatikoan Informazio Konfidentzialarekin lotuta duten informazioa ere, inolako kopiarik gorde gabe.

Administrazio Publikoekin, Bezeroekin eta beste edozein hirugarrenekin partekatutako informazio guztia eguneratuta egon behar da, egiazkoa, zorrotza eta langile egokiek osatua izan behar da, eta indarrean dagoen legeria bete behar du.

Finantza-txostenak, kontuak, balantzeak, kudeaketa-planak, plan estrategikoak, eta gainerako informazio finantzario eta estrategikoa BATZ Taldeko Finantza Zuzendaritzaren erantzukizuna izango dira. Argitara emateko edo zabaltzeko, hura jakinaren gainean egon beharko da eta baimena eman beharko du, BATZ Taldearen Finantza-politikan jasota dagoen bezala.

5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDE-ARAU OROKORRAK

5.6. JABETZA INDUSTRIALAREN – INTELEKTUALAREN BABESA. ENPRESAREN AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ARDURATSUA

BATZ Taldeko Langileek garatzen duten jabetza industrial edo intelektual babestu beharreko ondarea da, eta behar bezala erabili behar da.

Pertsonak BATZ Taldean beren lanbide-jarduera egitean sortzen dituzten jabetza intelektual, jabetza industrial eta enpresa-sekretuak ustiatzeko eskubideen titulartasuna BATZ Taldearena izango da.

Pertsonen eskura jartzen diren aktiboak eta baliabideak oker edo zuhurtzirik gabe erabiltzeak arrisku larria dakarkie BATZ Taldeari eta hura osatzen duten Pertsonari. Beraz, BATZ Taldeak segurtasun informatikoa babestu eta baimenik gabeko softwarea erabiltzea debekatzen du. BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak BATZ Taldearen ekipo informatikoetan ez dute software maltzurrik instalatuko edo erabiliko, ezta legez kanpoko beste edozein programa edo

aplikazio informatikorik ere, dagokion erabilera-lizentzia ofizialak babestuta ez dagoenik edo BATZ Taldearen edo hirugarrenen sistema informatikoen segurtasuna kolokan jar dezakeen edozein elementu sartzeko arriskua dakarrenik.

BATZ Taldeak bere Langileei beren jarduera garatzeko behar dituzten aktiboak eta baliabideak ematen dizkie. Pertsona bakoitzaren ardura izango da bitarteko horiek zaintzea eta bertan sartzeko bere pasahitzak kudeatzea, horretarako garatutako Protokoloak aplikatuta. Halaber, BATZ Taldea osatzen duten Pertsonen erantzukizuna da jasotako bitarteko informatikoak egokiro erabiltzea, ez dezaten inoren ondasunetan kalterik eragin, hala nola datuak, programak edo dokumentu informatikoak erabilezin bihurtzea edo ezabatzea.

5.7. BATZ TALDEAREN IRUDIAREN ETA OSPEAREN SUSTAPENA

BATZ Taldeak ospe sendoa du, bai bere eskarmentu handiari bai bere lantalde tekniko fidagarri eta leialari esker, zeina BATZ Taldearen kultura osatzen duten Balioekin, Printzipio Etikoekin eta ezagutzarekin konprometituta dagoen.

Pertsona guztiek kontu handiz zaindu behar dituzte BATZ Taldearen irudia eta ospea beren lanbide-jarduera guztietan. Era berean, Hornitzaileek, Bazkideek eta Bezeroek BATZ Taldearen irudi eta ospe korporatiboa zuzen eta behar den moduan erabiltzen dutela zainduko dute.

BATZGROUP

Torrea, 2 - 48140 IGORRE
(+34) 946 305 000
WWW.BATZ.COM

